

Sentencia contra 5 militantes vascos juzgados en Baiona por participar en varias manifestaciones

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 14/01/2025

15 meses de prisión para 2 personas, realizar trabajos de interés público, multas entre 1.000 y 1.500 €, un curso de concienciación ciudadana y prohibición de acudir a manifestaciones durante 3 años

[Euskara]

Argitaratu da manifestazioetan parte hartzeagatik Baionan epaitutako 5 euskal militanteren aurkako epaia

Guztira 30 hilabeteko espetxe zigorra ezarri diete. Gainera, interes publikoko lanak egitera, 1.000 eta 1.500 euro bitarteko isunak ordaintzera, herritarrak kontzientziatzeko ikastaro bat egitera eta 3 urtez manifestazioetara joateko debekua ezarri diete zigor gisa.

Gaur argitaratu da iazko **martxoaren 6an atxilotu zituzten** Ipar Euskal Herriko 6 militante independentistaren aurkako epaia, hainbat mobilizaziotan parte hartu izana egotzita: 2022ko uztailaren 14ko manifestazioa, U14 kolektiboak deitua, zeinean kaputxadun batzuek pintura-poteak jaurti zituzten higiezinaren agentzia batzuen aurka; 2023ko martxoaren 23ko manifestazioa, pentsioen erreformaren aurka, istiluak izan baitziren eta polizia-agente batzuk zauritzea leporatzen baitzieten; eta 2023ko uztailaren 12ko ekintza, Hendaian tren turistiko bat pintatu zutenekoa.

Euskal militanteak joan den urriaren 15ean epaitu zituen Baionako Justizia Auzitegiak, eta gaur argitaratu da bosten aurkako epaia (akusatutako seigarrena azkenean ez zuten epaitu, gertakarien unean adingabea zelako).

Akusatuetako biri 15 hilabeteko presondegi zigorrera kondenatuak izan dira, gainera, interes publikoko 140 orduko lanak eta 1.000 euroko isuna ezarri diete (murrizketa dela-eta, 500 euro inguruko zenbatekoa izango luke). Hirugarren akusatu bati eguneko 28 euroko isuna ezarri diote 60 egunez, hau da, 1.700 euro. Eta akusatuen multzoari frantses hiritartasunari buruzko ikastaro bat egitera zigortu dute, hiru urtez manifestazioetan parte hartzeko debekuz gain.

Zigortutako militanteei elkartasuna adierazteko deia egin dute gaur arratsaldean, 19:00etan, Baionako udaletxe aurrean egingo den elkarretaratzean.

[Castellano]

Hoy se ha hecho pública la sentencia contra 5 militantes independentistas de Ipar Euskal Herria que fueron detenidos el 6 de marzo del año pasado acusados de haber participado en distintas movilizaciones: La manifestación del 14 de julio del 2022 convocada por el colectivo U14 y en la que algunas personas encapuchadas lanzaron botes de pintura contra

varias agencias inmobiliarias, la manifestación del 23 de marzo de 2023 contra la reforma de las pensiones en la que se produjeron disturbios y se les acusaba de herir a varios agentes de policía, y la acción del 12 de julio de 2023 en la que se pintó un tren turístico en Hendaia.

Estas personas fueron juzgadas el pasado 15 de octubre por el Tribunal de Justicia de Baiona y hoy se ha hecho pública la sentencia contra 5 de ellos (hubo una sexta persona detenida que finalmente no fue juzgada por ser menor de edad en el momento de los hechos).

Dos de los acusados han sido condenados a 15 meses de prisión cada uno, además de realizar 150 horas de trabajos de interés público más una multa de 1.000 euros (que por reducción se quedaría finalmente en una cuantía de alrededor de 500 euros). Un tercer acusado ha sido condenado al pago de una multa a razón de 25 euros al día durante 60 días, es decir, 1.500 euros. Y el conjunto de los acusados ha sido condenado a realizar un curso sobre ciudadanía francesa, además de la prohibición de participar en manifestaciones durante tres años.

Hay un llamamiento para solidarizarse con los militantes condenados esta tarde en la concentración a las 19:00 frente al ayuntamiento de Baiona.

<https://eh.lahaine.org/sentencia-contra-5-militantes-vascos>